



BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA EMAKUMEEN KONTRAKO BIOLENTZIAREN AURKAKO EUSKADIKO UDALEN SAREAREN OINARRIZKO DOKUMENTUA -BERDINSAREA-

DOCUMENTO BASE DE LA RED DE MUNICIPIOS VASCOS POR LA IGUALDAD Y CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES -BERDINSAREA-

1. MARKO ARAUTZAILEA

Gai honetan inplikaturako euskal erakunde guztiek 2001eko urriaren 18an sinatutako *Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimak diren emakumeentzako arreta hobetzeko erakunde arteko akordioaren* Jarraipen Batzordeak beharrezkotzat jotzen du udal esparrutik ekintzarako lankidetzeta eta protokolo akordioak sinatzea, Akordio orokorrean xedatutakoa errealitate desberdinetara garatu, zehaztu eta egokitzeko. Aurreikuspen hori Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 62. artikuluan dago jasota.

Bere aldetik, Jarraipen Batzordeak –Emakunde / Emakumearen Euskal Institutua buru dela eta, besteak beste, EUDEL / Euskadiko Udalen Elkarteak kideen artean dagoela-2002ko azaroaren 22an *Etxeko tratu txarren biktimak diren emakumeen aldeko segurtasun plana (2002-2004)* onartu zuen. Plan horrek babes sozialeko esku-hartze esparrurako dituen neurrien artean, honakoak daude: “*Emakumeen kontrako Biolentziaren aurkako Euskadiko Udalen Sare bat sortzea, toki mailan biolentzia mota horri aurre egiteko programa eta ekintzak sustatzeko, biktimak babesteko, esperientziak trukatzeko eta ekintzak bateratu eta koordinatzeko*”.

Horretarako, 2005eko otsailan, Emakunderen eta EUDELen arteko lankidetzeta Hitzarmena sinatu zen, Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen kontrako Biolentziaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea abian jartzeko.

2. SAREAREN DEFINIZIOAREN PROZEDURA

2005ean, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Euskadiko Udalen Sarea definitzeari ekin zaio. Berdintasunaren aldeko eta Biolentziaren kontrako lanaren errealitatea eta tokiko erronkak kontuan hartuko dituen metodologia parte-hartzailea bultzatu nahi da. Horretarako, hauek izan dira abiapuntuak:

- 2.1. 2004an Emakundek Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztietara bidali zituen galdetegien azterketa. Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen kontrako Biolentziaren aurkako Euskadiko Udalen Sarearen ekimenean parte hartzeko zuten interesaren berri jakiteko bidali zitzaizkien galdetegiok.
- 2.2. 2005eko otsailan Emakundek eta EUDELek sinatutako lankidetzeta Hitzarmena aurkezteko jardunaldiaren memoria. Hitzarmen horren helburua Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen kontrako Biolentziaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea abian jartzea zen.

1. MARCO NORMATIVO

La Comisión de Seguimiento del *Acuerdo interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato doméstico y agresiones sexuales*, suscrito por todas las instituciones vascas implicadas en la materia el 18 de octubre de 2001, considera necesario que, desde el ámbito municipal, se elaboren acuerdos de colaboración y protocolos de actuación que desarrollen, concreten y adecuen a sus respectivas realidades lo dispuesto en el Acuerdo con carácter general. Tal previsión además ha sido recogida en el Art. 62 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Por su parte, La Comisión de Seguimiento – presidida por Emakunde / Instituto Vasco de la Mujer e integrada entre otras instituciones por EUDEL / Asociación de Municipios Vascos - aprobó, asimismo, el 22 de noviembre de 2002 el *Plan de Seguridad para las mujeres víctimas de maltrato doméstico (2002-2004)* entre cuyas medidas del ámbito de intervención protección social se recoge: “*Constituir una Red de Municipios Vascos contra la Violencia hacia las Mujeres que promueva, en el ámbito local, tanto la implantación de programas y actuaciones dirigidas a combatir este tipo de violencia y a apoyar a sus víctimas, como el intercambio de experiencias, la coordinación y actuaciones conjuntas*”.

Para ello, en febrero de 2005, fue suscrito el Convenio de Colaboración entre Emakunde y EUDEL para la puesta en marcha de la Red de Municipios Vascos por la Igualdad y contra la Violencia hacia las Mujeres.

2. PROCEDIMIENTO DE DEFINICIÓN DE LA RED

Durante el año 2005, se ha procedido a la definición de la Red de Municipios Vascos por la Igualdad de Mujeres y Hombres. Se ha apostado por una metodología participativa que tome en cuenta la realidad y los retos locales en el trabajo hacia la Igualdad y la lucha contra la Violencia. Para ello, se ha partido de:

- 2.1. Análisis de los cuestionarios enviados por Emakunde en el año 2004 a todos los municipios de la Comunidad Autónoma de Euskadi para conocer su interés por participar en la iniciativa de la Red de Municipios Vascos por la Igualdad y contra la Violencia hacia las Mujeres.
- 2.2. Memoria de la Jornada de presentación del Convenio de Colaboración suscrito entre Emakunde y EUDEL en febrero de 2005 para la puesta en marcha de la Red de Municipios Vascos por la Igualdad y contra la Violencia hacia las Mujeres.

- 2.3. Berdintasunaren aldeko edota Biolentziaren kontrako Estatuko beste udal sare batzuen esperientzien sintesia.
- 2.4. Beste udal sare tematiko batzuen esperientziak.
- 2.5. Sare proposamena egiteko, berdintasun arloko teknikariek osatutako talde teknikoaren batzarretako aktak.
- 2.6. EUDEL – Euskadiko Udalen Elkarteko Batzorde Agintariaren jarrera.
- 2.7. EUDELeK eta EmakundeK ekimen hau abiarazteko asmoz osatutako Jarraipen Batzordeak.

3. Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen kontrako Biolentziaren aurkako Euskadiko Udalen Sarearen IKUSPEGI konpartitua

Berdintasunaren alde eta emakumeen kontrako biolentziaren aurka konpromiso sendoa duten udalek modu bizkor eta eraginkorrean lan egiteko espazioa. Euskadiko Udal guztien erreferentzia izateaz gain, espazio horretan tokiko ekintzen kalitatea hobetu behar da arlo horretan, bai barrura zein kanpora begira. Baliabideen aprobetxamendua optimizatu behar da eta, beste erakundeen aurrean, interesak ordezkatu behar dira, ekintza bateratuko eta helburu konpartituko irizpideetan oinarritutako lanaren bitartez.

4. Sarearen EGITEKOA

Toki administrazioetatik kudeatutako gizon eta emakumeen berdintasunerako eta emakumeen kontrako biolentziaren aurkako programa eta zerbitzuak sustatu, sendotu, koordinatu eta ebaluatzea, ekintza eta ebaluaziorako irizpide bateratuak definituz eta lan hori tokiko ekintza publikoaren maila guztietara helduko den ekintza integrarean sartuz. Gainera, Sarea udalaz gaindiko beste erakunde batzuetara heltzeko lotura gisa erabili behar da.

5. PRINTZIPIOAK

Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen kontrako Biolentziaren aurkako Euskadiko Udalen Sareak printzipio hauekin jokatzeko du:

- 5.1. Konpromiso politiko irmoa.
- 5.2. Berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako biolentziaren aurkako ikuspuntu integrala.
- 5.3. Autonomiaren sustapenera eta emakumeen jabeakuntzara bideratutako perspektiba.
- 5.4. Prebentzioa lehentasun gisa daukan ikuspuntua.
- 5.5. Emakumeen aniztasunaren errespetua eta balorazioa.

- 2.3. Síntesis de experiencias de otras redes de municipios por la igualdad y/o contra la Violencia en el Estado
- 2.4. Experiencias de otras redes temáticas de municipios
- 2.5. Actas de las reuniones del grupo técnico conformado por técnicas de igualdad para la elaboración de la propuesta de Red
- 2.6. Posicionamiento de la Comisión Ejecutiva de EUDEL-Asociación de Municipios Vascos
- 2.7. Reuniones de la Comisión de Seguimiento conformada por EUDEL y Emakunde para la puesta en marcha de esta iniciativa

3. VISION compartida de la Red de Municipios Vascos por la igualdad y contra la Violencia hacia las Mujeres

Espacio de trabajo ágil y eficaz de municipios firmemente comprometidos con la igualdad y la lucha contra la violencia hacia las mujeres, que, siendo un referente para todos los Ayuntamientos Vascos, mejore la calidad de las actuaciones locales en esta materia tanto hacia dentro como hacia fuera de los mismos, optimizando el aprovechamiento de sus recursos y representando sus intereses ante otras instituciones, a través de un trabajo basado en criterios de actuación unificados y objetivos compartidos.

4. MISION de la Red

Impulsar, fortalecer, coordinar y evaluar programas y servicios gestionados desde las administraciones locales a favor de la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres, a través de la definición de criterios conjuntos de actuación y evaluación, enmarcando esta labor en una actuación integral que permee todos los niveles de la acción pública local, y utilice la Red como nexo de unión entre ésta y otras entidades supramunicipales.

5. PRINCIPIOS

La Red de Municipios Vascos por la Igualdad y contra la Violencia hacia las Mujeres actúa desde:

- 5.1. Un compromiso político firme
- 5.2. Un enfoque integral por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres.
- 5.3. Una perspectiva orientada a la promoción de la autonomía y el empoderamiento de las mujeres
- 5.4. Una visión que prioriza la prevención
- 5.5. El respeto y la valoración de la diversidad de las mujeres.

- 5.6. Berdintasuna sustatzera eta emakumeen kontrako biolentziaren biktimei laguntza ematera bideratutako baliabideak modu bateratuan erabiltzeko borondatea.
- 5.7. Erreferentzia izateko asmoa, ez soilik Udalentzat, baizik eta emakumeentzat ere bai.
- 5.8. Ekintzak etengabe hobetzeko beharrezana.

6. Sarearen HELBURUAK

- 6.1. Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea beteko dela bermatzea.
- 6.2. Tokiko esparruan programa eta ekintzak bultzatzea, gizon eta emakumeen berdintasuna sustatzeko, desberdintasunak desagerrarazteko eta emakumeen kontrako biolentziaren aurka borroka egiteko, 4/2005 Legeak ezarritako markoaren eta funtzioen arabera.
- 6.3. Arlo horretan, esperientzien trukea ahalbidetzea eta ekintzarako irizpideak koordinatu eta bateratzea, toki mailan ekintzak egin behar direnerako.
- 6.4. Udalaz gaindiko esparruetan hartutako edukiak udal errealitatean garatu, zehaztu eta egokituko dituzten lankidetzak akordioak eta ekintzarako protokoloak sustatzea, beti ere, berdintasunaren alde eta emakumeen kontrako biolentziaren aurka eginez.
- 6.5. Berdintasunaren alde eta biolentziaren kontra hartzen diren neurri legegileei buruzko hausnarketa egitea eta aurrera eramaten ari diren politikak aztertzea.
- 6.6. Berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako biolentziaren arloan egiten diren udal praktika onak identifikatu eta hedatzea.
- 6.7. Arlo horretan, oraindik ere egitura eta baliabide egokiak ez dituzten udalerrien lana dinamizatu eta babestea.

7. SARBIDERAKO PROZEDURA

7.1. BALDINTZAK

Sarearen parte izan ahal izango dira honakoak betetzen dituztenak, modu indibidualean edo elkartuta:

- 7.1.1. Berdintasunaren alde eta biolentziaren kontra indarrean dagoen legedia betetzea. Hori horrela, honakoak bete behar dira:
 - 7.1.1.1. Udalbatzak onartutako gizon eta emakumeen **berdintasunerako plan edo**

- 5.6. Una voluntad de utilización común de recursos orientados promover la igualdad y asistir a las víctimas de la violencia que se ejerce contra las mujeres
- 5.7. La pretensión de ser un referente no sólo para los ayuntamientos sino también para las propias mujeres
- 5.8. La necesidad de la mejora continua de las actuaciones

6. OBJETIVOS de la Red

- 6.1. Contribuir al cumplimiento de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres
- 6.2. Impulsar la realización en el ámbito local de programas y actividades dirigidas a promover la igualdad de mujeres y hombres y a eliminar las desigualdades y la violencia contra las mujeres de acuerdo con el marco y las funciones que establece la Ley 4/2005.
- 6.3. Facilitar en dicha materia el intercambio de experiencias, la coordinación y la unificación de criterios de actuación a la hora de realizar acciones en el ámbito local
- 6.4. Impulsar la adopción de acuerdos de colaboración y protocolos de actuación que desarrollen, concreten y adecuen a la realidad municipal los contenidos de acuerdos adoptados a nivel supramunicipal en relación a la igualdad y la lucha contra la violencia hacia las mujeres
- 6.5. Analizar las políticas que se están impulsando y reflexionar sobre las medidas legislativas que se adopten en materia de igualdad y lucha contra la violencia
- 6.6. Identificar y difundir buenas prácticas municipales en materia de igualdad y lucha contra la violencia hacia las mujeres
- 6.7. Dinamizar y apoyar el trabajo de aquellos municipios que todavía no cuentan con estructuras y recursos adecuados en esta materia

7. PROCEDIMIENTO DE ACCESO

7.1. REQUISITOS

Podrán formar parte de la Red aquellos municipios vascos que individualmente o de forma mancomunada:

- 7.1.1. cumplan con la legislación vigente en materia de igualdad y lucha contra la violencia. En este sentido, se requiere que:
 - 7.1.1.1. Cuento con un **plan o programa para la igualdad** de mujeres y hombres aprobado

programa bat izan behar du, 4/2005 Legeko 15.3 eta 15.4 artikuluekin bat etorritz.

7.1.1.2. Gizon eta emakumeen berdintasunaren arloan **esperientzia edota gaitasun zehatza duten langile teknikoak** izatea, berdintasunerako plan edo programa hori sustatzeko.

7.1.1.3. Aurrekontuetan urtero-urtero jaso eta zehaztea zeintzuk izan diren funtzioak aurrera eramateko eta plan edo programan aurreikusitako neurriak betearazteko **beharrezko baliabide material eta ekonomikoak**.

7.1.1.4. Emakumeen elkarteekin eta toki mailan gizon eta emakumeen berdintasuna lortzeko lana egiten duten beste elkarte batzuekin **parte hartu eta lankidetzan aritzeko lotura eta ildoak** finkatzea.

7.1.1.5. **Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimen egoera prebenitu, arreta eman eta babesteko, indarrean dagoen araudiak** aurreikusitakoa betetzea.

7.1.2. Sarean **modu aktiboan parte hartzeko** konpromisoa hartzea.

7.2. SARBIDE ESKAERA

Parte hartu nahi duten udalek eskaera orri bat bete behar dute, honakoak zehaztuz:

1. Udalak berdintasunaren alde eta emakumeen kontrako biolentziaren aurka egindako ibilbidearen memoria laburra.
2. Udalerriaren datu orokorrak, argi zehaztuz berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako biolentziaren aurkako zerbitzu eta baliabideak (zerbitzu horiekin harremanetan jartzeko datuak ere sartu behar dira).
3. Baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen txostena.
4. Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen kontrako Biolentziaren aurkako Euskadiko Udalen Sareara sartzeko dokumentuko sinadura.

por el Pleno del Ayuntamiento y de acuerdo a los art 15.3 y 15.4 de la Ley 4/2005

7.1.1.2. Disponga de **personal técnico con experiencia y/o capacitación específica** en materia de igualdad de mujeres y hombres para impulsar dicho plan o programa para la igualdad

7.1.1.3. Consigne y especifique anualmente en sus respectivos presupuestos los **recursos materiales y económicos necesarios** para el ejercicio de las funciones y la ejecución de medidas previstas en el plan o programa.

7.1.1.4. Establezca **relaciones y cauces de participación y colaboración** con asociaciones de mujeres y otras entidades que contribuyan a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres en el ámbito local.

7.1.1.5. Cumplan con lo previsto en la **normativa vigente** en materia de **prevención, atención y protección a las víctimas de maltrato doméstico y agresiones sexuales**.

7.1.2. se comprometan a **participar de forma activa en la Red**.

7.2. SOLICITUD DE ACCESO

Los municipios han de solicitar su participación mediante una hoja de solicitud que incluya:

1. Breve memoria de la trayectoria del municipio en materia de igualdad y violencia contra las mujeres
2. Datos generales del municipio que incluyan los servicios y recursos relacionados con la igualdad y la violencia contra las mujeres (incluyendo datos de contacto de los mismos)
3. Informe que verifique el cumplimiento de los requisitos
4. Firma del documento de adhesión a la Red de Municipios Vascos por la Igualdad y contra la Violencia hacia las Mujeres

Emakunde eta EUDELek osatutako Sarearen Jarraipenerako Batzordeak baloratuko ditu sarbide eskaerak.

Kide den udalen batek atal honetan jasotako baldintzak betetzeari utziko balio, Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen kontrako Biolentziaren aurkako Euskadiko Udalen Saretik kanpo geratuko litzateke.

8. EKINTZAK

Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen kontrako Biolentziaren aurkako Euskadiko Udalen Sareak egingo dituen ekintzen artean, hauek dira aipagarrienak:

- 8.1. aholkularitza udalerriei, programak, planak... egin ditzaten.
- 8.2. finantziarioa bilatzea kide diren udalen arteko ekintza bateratuetarako.
- 8.3. berdintasunaren aldeko eta biolentziaren kontrako borrokan, baliabide bateratuak sortu eta erabiltzeko sustapena egitea.
- 8.4. Euskadiko udaletan berdintasunari eta biolentziari buruzko informazio bilketa sistematikoa eta adierazleen diseinua.
- 8.5. berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako biolentziaren aurkako udal protokoloak sustatzeko tresnak sortzea.
- 8.6. tokiko ekimenei buruzko hausnarketa eta trukea.
- 8.7. berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako biolentziaren aurkako trebakuntza udaleko langile politikoei.
- 8.8. berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako biolentziaren aurkako trebakuntza udal langile teknikoei.
- 8.9. berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako biolentziaren aurkako sentsibilizazio kanpainak eta beste ekimen publiko batzuk garatzea.

9. BALIABIDEAK

9.1. Aurrekontuari dagokionez:

Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen kontrako Biolentziaren aurkako Euskadiko Udalen Sareak Emakunde eta EUDELek emandako aurrekontu propioa izango du, eta aurrekontu hori proiektu, diru-laguntza eta hitzarmenen bitartez osatuko da.

Las solicitudes de adhesión serán valoradas por la Comisión de Seguimiento de la Red formada por Emakunde y EUDEL.

En el caso de que algún municipio miembro dejara de cumplir las condiciones establecidas en este apartado, se entenderá que deja de formar parte de la Red de Municipios Vascos por la Igualdad y contra la Violencia hacia las Mujeres.

8. ACCIONES

Entre las acciones que llevará a cabo la Red de Municipios Vascos por la igualdad y contra la Violencia hacia las destacan:

- 8.1. asesoría a los municipios para la elaboración de programas, planes, etc.
- 8.2. búsqueda de financiación para actividades conjuntas entre municipios miembros
- 8.3. impulso para la creación y utilización de recursos comunes en materia de igualdad y lucha contra la violencia
- 8.4. Recogida sistemática de información sobre igualdad y violencia en los municipios vascos y diseño de indicadores
- 8.5. elaboración de herramientas para impulsar la elaboración de protocolos municipales en relación a la igualdad y a la lucha contra la violencia hacia las mujeres
- 8.6. reflexión e intercambio sobre iniciativas locales
- 8.7. formación en materia de igualdad y lucha contra la violencia hacia las mujeres dirigidas a personal político municipal
- 8.8. formación a personal técnico municipal sobre igualdad y lucha violencia contra las mujeres
- 8.9. desarrollo de campañas de sensibilización y otras actuaciones públicas a favor de la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres

9. RECURSOS

9.1. Respecto al presupuesto:

La Red de Municipios Vascos por la Igualdad y contra la Violencia contará con presupuesto propio otorgado por Emakunde y EUDEL, que será complementado con financiación a partir de proyectos, subvenciones y convenios.



9.2. Langile jakinei dagokienez:

Sareko Idazkaritza Tekniko bat egongo da EUDEL-en, eta sarea kudeatzeko esperientziadun edota berdintasunaren arloko gaitasun zehatzeko langileak arituko dira bertan.

9.3. Komunikazioa:

EUDEL-en web orrian, publikoari zabalik, Sareari buruzko espazio bat egongo da. Era berean, Intranet ere egongo da, Sareko kide diren udalentsat. Espazio horretan estekak egongo dira, Sareko kide diren udalen, Emakunderen eta helburuak lortzeko interesgarriak izan daitezkeen beste erakunde batzuen orrialdeetara joateko. Gainera, Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen kontrako Biolentziaren aurkako Euskadiko Udalen Sarearen irudi propioa ere diseinatuko litzateke.

9.2. Respecto a personal específico

Existirá una Secretaria Técnica de la Red en el seno de EUDEL que contará con personal con experiencia y/ o capacitación específica en materia de igualdad dedicado a la gestión de la red.

9.3. Comunicación:

Existirá un espacio en la web de EUDEL de la Red abierto al público y que contará también con una Intranet para los municipios pertenecientes a la misma. En este espacio habrá enlaces a las páginas de los ayuntamientos miembros de la Red, a Emakunde y a otras entidades que se pudiera considerar de interés para el adecuado cumplimiento de los objetivos. También se diseñaría una imagen propia de la Red de Municipios Vascos por la Igualdad y contra la Violencia hacia las Mujeres.